

zer ote?
Zizurkilgo aisialdirako gida



azaroa

2016 | 148. zenbakia | udazkena
www.zizurkil.eus

ErnioBidea 9 A, behea | 20159 ZIZURKIL | 943 692495

TXIRRINDULARI TALDEA SORTZEKO DEIALDIA



AZAROA 8

DANENA CICLISMO:
¡AYUDANOS A CREAR EQUIPO!

18

HOMENAJE AL PRIMER CICLISTA
VASCO CLASIFICADO EN EL TOUR



DANENA TXIRRINDULARI TALDEA sortu nahi da, eta interesa izan dezakeen pertsona orori gonbita egiten zaio azaroaren 8an 19:30ean Danenako lokalean egingo den bilerara hurbiltzeko. Txirrindularitza gustuko duten guztiei, guraso, haur eta gazteei... ZATOZ TALDEA OSATZERA!

TOURREKO LEHENENGO TXIRRINDULARI EUSKALDUNARI OMENALDIA:

17:00etan, GAZTEZULOK antolaturik, adin guztietako haurrentzat GINKANA Joxe Arregi plazan. Parte-hartzaile bakoitzak bizikleta eta kaskoa ekarri beharko ditu.

19:30ean, TXIRRINDULARIEKIN SOLASALDIA Atxulondo kultur etxean: TXIRRINDULARI IZATEKO LEHENENGO PAUSOAK. Mikel Nieve, Jon eta Gorka Izagirre, Jon Irisarri, Lierni Lekuona, Unai Iribar eta Jon Ander Insausti.

21:00etan, Urkamendi elkarteak, Mikel Nieve txirrindulariari omenaldia. **Zorionak!**



AZAROA

ASTELEHENA OSTEKUNA OSTIRALA LARUNBATA IGANDEA

	3 JOLAS LIBREA	4 SUKALDARITZA "Gaztainak erre"	5 GURE BOLARA	6
7 JOLAS LIBREA	10 JOLAS LIBREA	11 GINKANA ANTOLATU	12 GURE BOLARA	13
14 HAURREN EGUNERAKO ESKULANAK	17 HAURREN EGUNERAKO ESKULANAK	18 TOURREKO EUSKALDUNARI OMENALDIA: GINKANA	19 GURE BOLARA	20 HAURREN EGUNA
21 PATCHWORK TAILERRA	24 PATCHWORK TAILERRA	25 INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA BELDUR BARIK (BIDEOAK IKUSI)	26 GURE BOLARA BELDUR BARIK bideoak ikusi	27
28 EUSKAL ABESTIEN KARAOKEA (EUSKARAREN ASTEA)				

ASTELEHEN ETA OSTEKUNETAN 17:00ETATIK 20:00ETARA 9-12 URTE BITARTEKOENTZAT.

OSTIRAL ETA LARUNBATETAN 17:00ETATIK 20:00ETARA 13-17 URTE BITAETEKOKOENTZAT.

KULTURA



PLAZIDA OTAÑO LIBURUTEGIA

osti

ASTEROKO IPUIN TARTEAK

Ostiraleko 17:45ean TXIKITXOKOAN

19

IPUINEN UNIBERTSOA FAMILIAN

San Millan ikastetxeko Urkamendi Guraso Elkartean eskutik, IPUIN MARRAZTUAK (Marrazkiak: Izaro Lizarraga). 11:00etan.

osti

GABONETAKO APAINGARRIEN TAILERRA

Azaroaren 11n hasita, OSTIRALERO, 17:30etik 19:30era. 7 urtetik gorako haurrei zuzendua.

SANTA XEXILI

22

Loatzo Musika Eskolako ikasleek kalejira alaia eskainiko dute Zizurkil Goiko kaleetan zehar, musikarien eguna ospatzeko, 18:30ean. Ondoren, txokolatea banatuko da musikarien artean, eta instrumentuen kontzertua eskainiko dute Zimiterioan.

MEMORIA TAILERRA

TALLER PARA EJERCITAR LA MEMORIA!

Iriarte Kultur Etxean azaroaren 16an hasita, asteazkenetan hamabostean behin 18:30etik 20:00etara. Prezioa: 75€
Izen emateak, Udal Bulegoetan azaroaren 7a baino lehen.



ERAKUSKETA ETA TAILERRA

EL DESPERTAR DE LA FEMINIDAD

GOTZON HUEGUN artistaren taila eta eskultura erakusketa.
Inaugurazioa: azaroaren 18an 19:30ean (urtarrilaren 5a arte ikusgai).

ARTISTA TAILERRA Abenduaren 3an

Gotzon Huegunek bere teknika ezagutzeko tailer praktikoa emango du 10:00etatik 12:00etara.

Izen emateak: Udal Bulegoetan azaroaren 25a baino lehen.

DIRU-LAGUNTZEN BIGARREN ZATIAREN ZURITZEA

JUSTIFICACIÓN DE SUBVENCIONES

Udalak 2016 urtean eman dituen diru-laguntzen zuritzea egin beharko da, urtea amaitu aurretik. Horretarako, diru-laguntza jaso duten taldeek urteko ekitaldien memoria eta fakturak aurkeztuko dituzte. Dokumentazio hori aurkeztu ondoren, Udalak diru-laguntzaren %25 ordainduko die.

PAREKIDETASUNA

25

EMAKUMEENGANAKO INDARKERIAREN KONTRAKO NAZIOARTEKO EGUNA



BESTELAKOAK

13

SAN MILLAN EGUNAREN OSPAKIZUNA

11:00etan, meza; 12:00etan, kalejira soinu-joleekin, eta 14:00etan bazkaria.

20

EBEL ELKARTEAREN 25. URTEURRENA

10:00etatik aurrera: Ekitaldia Udaletxean, herri kirolak eta giza proba, sari banaketa eta bazkaria.

AZOKA

Zizurkilgo baserriko produktuak
Ostiraleko 12,30etatik 15,00etara Pello Mari Otaño plazan.

EUSKARA

TEODORO HERNANDORENA XV. IPUIN LEHIAKETA



Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Irura, Larraul eta Zizurkilgo herritarrek parte hartu ahal izango dute.

Adinaren arabera bost maila ezberdin antolatu dira: A maila: 6-8 urte; B maila: 9-11 urte; C maila: 12-13 urte; D maila: 14-16 urte; E maila: 17 urtetik gora.

Lan bakoitzaren bi kopia entregatu behar dira azaroaren 18ko eguerdiko 14:00ak baino lehen, Zizurkilgo Udal Bulegoetan. Oinarriak ere eskuragarri daude bertan.